

## DBHko ikastetxea eraikitzeke partzelari oniritzia eman dio Hezkuntza Sailak

Baldintza jarri du Astigarragako Udalak egitea urbanizazio lanak, eta horiek martxan jartzeko konpromisoa hartu du Gobernu Taldeak.

ASTIGARRAGA UDALA

Beste pauso bat eman du Astigarragako, DBHko ikastetxea edukitzeko bidean. Izan ere, oniritzia eman dio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, ikastetxea Mendiandi-Aranibarreko partzelan eraikitzeari, Astigarragako Udalak bertako urbanizazio lanak egiteko baldintzarekin. Horiek martxan jartzeko konpromisoa hartu du Gobernu Taldeak, eta aurten bukatzea espero du, urtea bukatu baino lehen Hezkuntza Sailari entregatzeko partzela hori.

Hala jakinarazi zuen Xabier Urdangarin alkateak, asteazkenean: «albiste onak dauzkagu, Hezkuntza Sailak idatziz konfirmatu baitigu, onartuko duela DBHko ikastetxea Mendiandi-Aranibarren egitea, Udalak goi tentsioko linea lurperatzeko eta irisgarritasun gabeziei aurre egiteko urbanizazio lanak egiteko baldintzarekin».

Erabaki hori adostu zuten, urtarrilaren 10ean Hezkuntzak eta Udalak egin zuten bileran.

**Uztailetik abendura, lantzen** 2019ko uztailetik dator gaia. Orduan helarazi zion idatzia Hezkuntzak Udalarari, adieraziz partzela horrek irisgarritasun eza eta malda haundiak zituela, eta eskatu zion beste eremu aproposago bat bilatzeko. Bilera eskatu zion Udalak, «gaia elkarrekin aztertu eta argitzeko»; eta bi dokumentu aurkeztu zizkion: «udal arkitektoaren txostena, adierazten duena partzela iris-



Udal Gobernu Taldeko kideak, DBHko ikastetxearen eta eremuaren txosten, proiektu eta planoekin.

garria dela eta azalera nahikoa duela; eta aholkulari juridikoa-rena, esanez partzela hori dela epe labur edo ertainera eta Plan Orokorra aldatu gabe, lur eremu bakarra». Bilera horretan adostu zuten, Udalak azterlan bat egingo zuela partzelaren irisgarritasun eta azaleraren inguruko proposamen zehatzarekin, eta urbanizazio lanen proposamenarekin.

Uztailetik abendura bitarte landu ditu bi gaiak Udalak: «batetik, neurriak aztertu dira irisgarritasun oztipoari irtenbideak emateko, eta DBH-Batxilergoko ikastetxe baten beharrei erantzun zuzenaren aurreneko proposamena landu da, Hezkuntzak emandako ikasle kopurua eta espazioen beharrak kontuan hartuz; eta bestetik, goi tentsioko linea lurperatzeko proiektua landu eta adostu da Iberdrolarekin, 400.000 euro inguruko kostua izango duena».

Proiektu eta azterlan horiek aurkeztu zizkion, urtarrilaren 10eko bileran. Bertan, partzelari oniritzia ematearekin batera, elkarlanean jarraitzea adostu zuten, ikastetxearen beharrak zehaztu eta dimentsionatzeko: «zehaztu behar da batxilergoa bai ala ez, abiapuntuko beha-


rretatik abiatuta etorkizunean haunditzeko aukera ematen duen eraikina izatea... Aste Santua baino lehen egingo dugu hurrengo bilera, bereziki ikastetxearen dimentsionamendua- ren gaia erabakitzeke», azaldu du Urdangarinnek.

**«Aurrerapauso handia da, Astigarragan DBHko ikastetxe bat edukitzeko bide luzean»**

Udalak adierazi du, bilera horretan egindako urratsa «aurrerapauso handia» dela, «Astigarragan DBHko ikastetxe bat edukitzeko bide luzean». Eta dio, uztailetik orain arte egindako lanak, ahalbidetuko duela partzela lehenbailehen prest

eduki eta Hezkuntza Sailaren esku uztea: «urbanizazio lanak egiteko proiektuak amaitzeaz dauzkagu, eta aurreikusten dugu 2020ko urte bukaerarako partzela Hezkuntzari utzi ahal izatea». Gainera, Udalak azaldu du, aldi berean ikastetxearen oinarritzeko proiektua landuko dutela Hezkuntza Sailarekin.

Hortik aurrera, faltako da proiektua idatzi, obrak lehiaketara atera, eta eraikina egitea. Prozesu luzea da oraindik: «aurrena etxeko lanak egin behar ditugu, eta gero presioa prozesua azkartzeko, eta ulertzen dugu herritarrek ere egin behar dutela, orain arte bezala», adierazi du alkateak. **K**



DBHko ikastetxea izan daitekeenaren irudia. Irudi gehiago: 'www.kronika.eus'



## Bi finalerdi jokoan gaur, Goizuetan

GOIZUETA ESKU PILOTA

Finalerdietan da Mendialdeko Txapelketa, eta gaur bertan jokatuko dira bi partidu Goizuetan, herriko bi bikote tartean direla. 18:00etan hasita, Zurutuza eta Garmendia ariko dira aurrea, Araxeseko Sotil eta Satrustegiren kontra; eta Alsua eta Aranberri ondoren, Larraungo Lekuona eta Etxarriren kontra. Sein mailakoak dira.

## 'Aguas oscuras' eta 'Lur eta Amets', asteburuan

HERNANI ZINEA

Bueltan da zinea Biterin, asteburu honetan. *Aguas oscuras* filma jarriko dute, gaur 22:30etako saioarekin hasita, astelohenera bitarte. Abokatu bat da protagonista: deskubritu du, hainbat heriotza munduko konpainia haundienetako batekin daudela lotuta; baina horiek argitzeko saiakeran, bere bizitza, familia eta lana jarriko ditu jokoan. Haurrentzat, berriaz, *Lur eta Amets* jarriko dute, bihar eta etzi, 16:30etan.

## Beñi Agirrerren liburuaz, solasaldia

ASTIGARRAGA HARITUZ ELKARTEA

Harituz elkarteak antolatuta, kultur etxean izango da gaur, Beñi Agirre historialari hernaniarra. Eta 19:30etan hasita, *Historia nabarra de Gipuzkoa* bere azkeneko liburuari buruzko solasaldia eskainiko du.

## Patchwork manta zozketan, gaur

HERNANI ERAKUSKETA

Gaur bukatuko da Patchwork lanen erakusketa, Biterin, 17:00etatik 20:00etara. Eta bukatzeko, manta bat zozketatuko dute bertan, errifak erosi dituztenen artean.

**PEÑA**  
sulabe  
Okindegia - Janaridenda  
Eguneroko zure beharrei erantzuteko,  
Kale Nagusian gaude.  
Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

**ISABEL**  
Janari denda  
COVIRAN  
Tomas Alba 11,  
Astigarraga  
943 55 23 67

OGI BERRI  
OKINDEGIA  
Rosa Morla  
Kale Nagusia, 31  
20115 ASTIGARRAGA  
Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314  
rmorlalengu@yahoo.es

Allianz  
ASEGURUAK  
bizitza -  
lurpekoak -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsiok -  
agustin ezponda irizar  
agentzia  
Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**EGURDIA GAUR** Goizean zaparradaren bat bota dezake oraindik, baina argitzera eta epeltzera egingo du. Giro eguzkitsua nagusituko da, eta hego-mendebaldeko haizea zakartu egingo da. **Min.8° / Max.19°**

**BIHAR** Goizeko giroa epela izango da oraindik, baina fronte batek haizea ipar-mendebaldera aldaraziko du, giroa freskatuz eta euria ekarri. **Min.10° / Max.17°**

ARGITARATZAILA **DOBERA EUSKARA ELKARTEA** **LAGUNTZAILAK** **Hernaniko Udala** **Astigarragako Udala** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK** **HERNANI BIZIPOZA ELKARTEA** **HERNANI PEÑA OTAÑO** **ESKELAK** **IRAGARKI MERKEAK** **INIGO ROYO MASAJISTA** **ZORIONAK IZEI!** **ZORIONAK MARTA!!**

## Izena emateko azken egunak, Telmo Trenorrekin bideoklipa grabatzeko

BeatEROAK esperientzia pilotuan hartuko du parte Gaztelekuak. Rap abesti bat sortu ahal izango dute gazteek.

HERNANI GAZTELEKUA

Gaztematikak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako egitasmoa da BeatEROak, eta esperientzia pilotu hau hiru herritan jarriko da martxan; besteak beste, Hernanin, Gaztelekuaren bitartez.

Egitasmoaren helburua da 12 eta 16 urte bitarteko gazteek Telmo Trenor beatmaker ezagunarekin rap abesti bat sortzea eta bideoklipa grabatzea.

**Rap abesti baten errimak eta bideoklipa**

Parte hartzen duten gazteek aukera izango dute rap abesti bat nola egin ikasteko. Telmo Trenor beatmaker ezaguna da, eta *Maps* edo *Heat* bezalako lan entzutetsuak eginak dauzka, baita DJ saioak eman ere. Berak sortutako oinarrien gainean hitzak eta errimak josi ahal izango di-



Telmo Trenorrekin lan egiteko aukera izango dute gazteek.

**Telmo Trenorrekin saioa martxoaren 13an izango dute izena ematen duten 12 eta 16 urte arteko gazteek; izena emateko epea bihar bukatuko da.**

tuzte gazteek, beti ere, hitza hartuta. Gazteak izango dira aldarri ezberdinen arteko lotura eta hitzarekin jolasteko aukera izango dutenak, ulertzeko, abestien sortze prozesua nolako den ba-

rrutik, eta esperimatzeko aukera izateko. Era berean, gazteei kezka sortzen dieten gaien inguruan nola hausnartu eta kezka horiek errimatar nola eraman ere landuko da Trenorrekin.

Hori guztiaz gain, bideoklip bat egiteko ere aukera izango da.

**Izena, bihar arte**

Parte hartu nahi duten gazteek izena eman behar dute aurretik. Telmo Trenorrekin saioa martxoaren 13an egingo da, datorren ostiralean, arratsaldeko 16:30etatik 19:30etarako tartean, Gaztelekuaren bertan.

Izen-ematea, berriz, bihar bukatuko da, parte-hartzea mugatua baita. Izena ere Gaztelekuaren bertan eman behar da. **κ**

## 'Gure bizipoza, guztiona' dokumentala eta dokuweba aurkezteko, ekitaldia gaur

Biterin izango da, 19:00etan hasita, Bizipoza elkartearen bi egitasmoen aurkezpena.

HERNANI BIZIPOZA ELKARTEA

Hitzordu berezia jarri du gaur, Hernanin, Bizipoza Elkarteak. Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten 35 elkarte hartzen dituzte bere barnean Bizipozak, eta horien zeregina, helburuak eta lana aditzera emateko, hainbat dokumental txiki egin ditu.

Horrela osatu du *Gure bizipoza, guztiona* dokumentala, 20 minutu ingurukoa; eta 35 elkartearen dokumental txiki horiek guztiak biltzen dituen dokuweba, bakoitza hiru minutu ingurukoa. Bi egitasmoak aurkeztera dator Hernanira, gaur arratsaldean.

dean. Biteri kultur etxean jarri dute zita, 19:00etan hasita.

**Kirolari, bertsolari, musikari eta dantzariak, aurkezpenean** Anabel Arraizak egingo du dokumentalaren eta dokuwebaren aurkezpena, eta beste hainbatek ere hartuko dute parte, Biteriko ekitaldian.

Horrela, bertan izango dira Hernaniko Ttarla Dantza Taldeko kideak, Eli Pagola hernaniarra eta Ane Labaka bertsotari, Patxuko Nice musikaria, Ene Kantak taldea, edota Nahikari Garcia eta Mariasun Quiñones Realeko futbolariak.

Bizipoza osatzen duten elkartearen artean daude, besteak beste, Juneren Hegoak, Pausoka, Etiopia Utopia, Super H, Seaska edota Oporrak Bakean. Informazio gehiago, elkartearen webgunean: [bizipoza.eus](http://bizipoza.eus). **κ**

## Urteko batzarra etzi, elkartearen

HERNANI PEÑA OTAÑO

Etzi egingo du urteko batzarra, igandearekin, Peña Otaño elkarteak. Goizeko 10:00etan izango da, aurreneko deialdian edo 10:30etan bigarrenetan, elkartearen bertan.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**SATURNINA SALABERRIA ZUBIRI**

*Izar eder bat joan zaigu ondotik  
Berak zion bezela zainduko gaitu dagoen tokitik  
Beti bezela matteko zaitugu bihotz bihotzetik*

**OIHANE ETA JULEN,  
NAROA ETA IMANOL ETA OIER**

Hileta **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **18:00**etan Goizuetan.

Goizuetan, 2020ko otsailaren 28an

## IRAGARKI MERKEAK

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

## Ibon Fernandez Iradi presoak aske ez uztea erabaki du Frantziako justiziak

Ezezkoa eman dio Zigorren Aplikaziorako Ganbarak, kaleratzeko eskaerari. Manifestazioa deitu dute gaur, 20:00etan Lasarten.

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Frantziako justiziak ez du aske utziko, oraingoan ere, Ibon Fernandez Iradi presoak, esklerosi

anizkoitza gaixotasuna daukana. Kaleratzeko eskaerari ezezkoa eman zion atzo Zigorren Aplikaziorako Ganbarak, eta beraz, kartzelan segiko du.

Azaroan, presoak aske uzteko motiborik bazela onartu zuen auzitegi batek, baina fiskaltzak errekurtsioa jarri, eta erabakia aldatu du ganbarak.

Erabaki horren kontra, eta Ibon Fernandez askatasuna eskatuz, manifestazioa egingo dute gaur, Lasarterako Okendo plazatik abiatuta, 20:00etan. **κ**

**DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU** eguerditan gazteekin aritzeko

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:

[dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**  
Dobera Euskara Elkarte  
Larramendi 11  
behea  
20.120  
HERNANI

**ESKATZEN DA:**  
- Euskara ondo menperatzea  
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionaturako formazioa  
- Haur eta gazteekin esperientzia

**BALORATUKO DA:**  
- Doberako bazkide izatea  
- Hernaniarra izatea

**ESKAINIKO ZAIJO:**  
- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak  
- Kontratu formala

Baldintzak betetzen dituztenen artean aukeraketak egin eta bat aukeratu da

**5 urte**

**Zorionak Izei!**

5 muzu handi aitona, amona, osaba eta familiaren partez.

**ZORIONAK MARTA!!**

**MUXU PILA**  
*etxekoan eta lagunen partez!*

Centro Penitenciario Logroño